

BEHARKI LEIZARRAGA'REN TESTAMENTU BERRIA-N

Azkue'k dionez, "obligaciones, servicios necesarios a alguien; obligations, services dont une personne a besoin" omen da *beharki*. Eta itzulpen au indartzeko bi zati zaar dakarzuki. Bata, leenbizikoa, Leizarraga'rengandik artua (Mc. 1, 45): *has cedin anbitz gauçaren publicatzen, eta beharquiaren manifestatzen*. Onela iraultzen du berak erderara: "empezó a publicar muchas cosas y a manifestar obligaciones, il se mit à raconter beaucoup de choses et à publier ses services".

Lhande'ren iztegian ere, orrelatsu agertzen da beharki: "nécessité" omen da aurrenik, eta "devoir, obligation, charge" gero. Leen adieraren alde, Leizarraga agertzen zaigu emen ere, zein tokitan adierazi gabe.

Azkue'k dakarren bigarren ebanjelioaren pasartea, ordea, eta gauza agiria da ori, ezin diteke orrela itzul. Latiñezko oiñarriak *coepit praedicare, et diffamare sermonem*, dio, eta grekozkoak *é.rxato ke.rússein pollà kat diaphé.mízein tòn lógon*. Argi eta garbi dago, beraz, *sermo* eta *lógon*-en ordaiña dugula emen euskerazko *beharkia*.

Are geiago. Jondone Paulo'ren epistoletan (Rom. 9, 28) bada orren antzekorik: *Ecen Iaunac acabatzen eta laburtzen du beharquia iustitiarequin: ceren beharquit laburtubat eguinen baitu Iaunac lurraren gainean*. "Verbum enim consummans, et abbrevians in aequitate: quia uerbum breuiatum faciet Dominus super terram". Grekoz, berriz ere, *lógon* (akus.) dugu aurrean.

Itz ori, *lógos*, onela artu bear omen da Testamentu Berrian (1): "itza", "Jainkozko itza", "kontua" (cf. 1 Petr. 4, 5, lat. "qui reddent rationem", Leiz. *ceinéc contu rendaturen baitraucate*), "arrazoia" (cf. 1 Petr. 3, 15, lat. "rationem", Leiz. *raçoin*).

Beste leku batean, ordea, *aitia, causa* itzultzeko darabil *beharki* Leizarraga'k (Mt. 19, 10): *Baldin horlaco bada guiçonearen emaztearequilaco beharquia, eztuc on ezconcea* "Si ita est causa hominis cum uxore, non

(1) A. SOUTER: A Pocket Lexicon to the Greek New Testament, Oxford, 1917, s. u.

expedit nubere". Badirudi emen "bearra, eginbidea" dela *bebarkia*, Olabide'k leku orretan, itzez itz, *auxia* itzultzen badu ere; baiña ez nora ezean. Pasarte orretan, ain zuzen ere, *aitia* "relationship, matter, circumstances, case" dela esaten baitigute (2). Ez genduke aaztu bear, gainera, latíñezko *causa* "causa, motivo" ez ezik, "asunto, cuestión" ere bazela, laster asko *res*-en ordezeko biurtzekoa. Orixe da, izan ere, *causa*-ren ondo-rengoek duten balio bakarra, bai erromantzeetan eta baita ere gure euskerazko *gauza* ezagunean.

Testamentu Berritik kanpora ere, bein beintzat badarabil itz ori Leizarraga'k, aurrean ipiñi zion *Aduertimendua*-n (***) i.r^o): *Ecen gure saluamenduco beharquian, hunetan iracasten çaicunaz berçalde syllaba baten-ere iracastera iarten liçatena, behar da maradicatutan eduqui Iaincoaren eta haren Eliçaren aitzinean*. Emen ere "asunto, negocio" (edo, orain esan oi den bezala, "cuestión, problema"), frantsesez "affaire" edo, itzuliko nuke nik, eta ez "obligación", Orixe'k eskuz egiñik utzi zuen oar batean irakurtzen den bezala.

Emen Leizarraga'z ari naiz bakar-bakarrik, eta beronen erabilleraz: eztu orrek esan nai, beraz, *bebarki*-k eztuela besterengan beste baliorik. Etxeberrri Ziburu'koa aipatzen du Azkue'k, *Noelac*, 211'gn. orrialdean (3):

Gueroztic tutçue haren
Eguiten beharquiac,
Gueroztic cumplitcen haren
Embachada guztiac.

Or ere, bear bada, "obligaciones" baiño egokiago letorke beste zerbait.

Leizarraga'ren *auxia* garbitzeko beste argibide mota bat genduke bearezko. Latiña eta grekoa aipatu ditut, iturburu antzera, eta eztira izkuntza oriek izan aren iturburu bakarra. Aurrean eduki zuen frantses testoa ere bear genduke ezagutu, eta eztago orretarako aukerarik emen. Lafon irakasleak, agian, Leizarraga zaarra ain azalez eta mamiz ikertua duen ezkerero, eman dizaguke eskas dugun laguntza.

L. MITXELENA.

(2) Op. cit., s. u. *aitia*.

(3) 1697'ko edizioaz ari naiz, irugarrenaz dirudienez.